

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

20/2020 Dekretua. Eskuordetze berezia zinegotzi bati, baimentzeko 2020ko maiatzaren 22ko ezkontza zibila

Abenduaren 23ko 35/1994 Legearen artikulua bakarrik aztertu da, zeinak Kode Zibila aldatzen duen alkateek ezkontzarako baimena emateari dagokionez. 51. artikulua idatzi berriak lehen puntuan ezartzen du erregistro zibilaren ardura duen epaileak, ezkontza egingo den udalerriko alkateak edo eskuordetutako zinegotziak dutela ezkontza baimentzeko eskumena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua, artikulua horren 3. puntuak eta 23.4 artikulua eta Toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoaren arautzea onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43., 44. eta 45. artikuluek ezarritakoa kontuan harturik, honako hau

Ebatzi dut

Lehenengoa. Zuriñe Blas Bouzas zinegotziari eskuordetze berezia ematea baimentzeko 2020ko maiatzaren 22an, 13:00etan, Bastidako udaletxean egingo den ezkontza zibila.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi interesdunari jakinaraztea; hurrengo bilkuran horren berri udalbatzari ematea, eta ALHAOn eta udaleko iragarki taulan argitaratzea.

Hirugarrena. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44. artikulua 2. paragrafoak xedatutakoarekin bat etorriz, eskuordetzeak dekretu hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Bastida, 2020ko otsailaren 12a

Alkate-lehendakaria
LAURA PÉREZ BORINAGA